



ZIENTZIATEKA

Natura, Literatura eta Zientzia

Ikerketa-arlo desberdinen arteko bategitea betidanik izan da garai bakoitzaren errealitatea modu orokor eta fidagarrian islatzeko tresna zoragarria. Zentzu horretan, naturaren, literaturaren eta zientziaren arteko lotura da, agian, gizakiak mundua elkarren osagarri diren hainbat ikuspegitik aztertu eta irakasteko modu harrigarrienetako bat.

Hiru jakintza-arlo horien batura izango da Azkuna Zentroan apirilaren 10 eta 19 bitartean eskainiko diren “**Natura, Literatura eta Zientzia**” hitzaldien gai nagusia. Ekitaldia, “**Zientziatega**” hitzaldi-zikloaren esparruan antolatuta, naturaren eta literaturan islatutako giza-ingurunearen arteko harremana elkartzen saiatuko diren zientzialarien bost konferentziez dago osatuta.

“Natura, Literatura eta Zientzia” zikloa, zeina Kultura Zientifikoko Katedrak Azkuna Zentroarekin batera antolatu duen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Zientzia eta Teknologiarako Espainiar Fundazioaren (FECYT) laguntza jaso duen, Gutun Zuriaren, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia, hamaikagarren edizioaren aurrerapena izango da.

Literatura-hitzordu ezagun horren edizio berria apirilaren 23tik aurrera izango da Azkuna Zentroan, eta nazioko, nazioarteko zein tokiko idazleak irakurleekin elkartzeko aukera aparta izango da. Ekitaldiaren ardatza Henry David Thoreau idazlearen lana izango da, naturaren unibertso naturalaren babesle gisa aski ezaguna. Thoreau-ren jaiotzaren bigarren mendeurrena iaz ospatu zela eta, Jaialdiaren gaia literatura eta ingurumen naturalaren babesa izango dira.

Hitzaldiak

UPV/EHUko irakasle eta matematikari den **Raúl Ibáñez Torres** izango da apirilaren 10ean “Natura, Literatura eta Zientzia” hitzaldien zikloa inauguratzearen arduraduna. **“El teorema de la Rosa”** (**“Arrosaren teorema”**) izeneko hitzaldian, zientzia dibulgatzaileak matematikak natura aztertzeko eta haren edertasuna ulertzeko funtsezko tresna gisa duen garrantziaz hitz egingo du. Hitzaldiaren xedea bertara etorritakoak egungo literaturaren ikuspegi kritiko eta kreatiboaren bitartez naturaren matematiketan barneratzea da. Horretarako, Ibañezek hainbat adibide erraz eta interesgarri hurbilduko dizkio entzuleei, esaterako Fibonacciren segida, urrezko arrazoia, korapiloen teoria edo fraktalak.

Bigaren hitzaldia, **“Elementos a vuelapluma”** (“Elementuak arrapaladan”) izenekoa, apirilaren 12an izango da, eta Déborah García Bellosok kimikari eta dibulgatzaileak emango du. Bere hitzaldian, García Bellosok kimikak eta bere fenomenoek literaturan duten betekizun protagonista aztertuko du. Hizlariak kimika arrapaladan sartu eta literatura-elementu boteretsu bilakatu den liburuak eta abestiak ezagutzera gonbidatuko ditu gerturatuko direnei.

Hirugarren jardunaldian, apirilaren 16an, **Juan Ignacio Pérez Iglesias** biologo eta UPV/EHUko Fisiologia katedradunak biologiaren eta literaturaren arteko ezusteko harreman ederra aurkeztuko die. **“Animalien letrak”** hitzaldian (euskaraz izango da), Pérez Iglesiasek historian zehar gizakiaren eta animalien arteko erlazio estuak herri literaturan zein literatura kultuan izan duen eragina aztertuko du, baita beste adierazpen artistikoetan ere.

UPV/EHUko Planeten Zientzien taldeko astrofisikari eta ikertzaile den **Santiago Pérez Hoyosek** eskainiko du apirilaren 18ko hitzaldia. **“Explorando el espacio a través de la literatura de ciencia ficción”** (“Espazioa zientzia-fikzioaren bitartez arakatzen”) hitzaldian, Pérez Hoyosek espazioa literaturan nola aztertu den azalduko du, are zehatzago XXI. mendeaz geroztik idatzitako zientzia-fikziozko eleberrien bitartez gehienbat. Adibide batzuk aztertuz, astrofisikariak narrazioen lizentzien eta zorrotasun zientifikoaren artean betidanik egon den harreman zailari buruz hitz egingo du, baina baita zientzia-fikziozko literaturak gizakiak espazioari buruz izan dituen ideiak aberasten lagundu izanari buruz ere.

Zikloa apirilaren 19an bukatuko da **“La geología fantástica de Verne, Poe y H.P. Lovecraft”** (**“Vernerren, Poeren eta H.P. Lovecraften fantasiako geologia”**) hitzaldiarekin. **Blanca María Martínez García**ak, UPV/EHUko Estratigrafia eta Paleontologia departamentuko ikertzailea, haien lanen ardatz gisa geologia erabili zuten fantasiako eta beldurrezko hiru idazle handiren lanari buruz hitz egingo du.

Hitzaldi guztiak arratsaldeko 7etan hasiko dira. Sarrerak Azkuna Zentroaren informazio-gunean hartu behar dira eta doan dira.